

PuLunPe

152. Zenbakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA





Barnealde ahur, sekula ez ahul
eusteko,
laztantzeko,
lotzeko eta askatzeko.
Eraldatzeko.
Eskualde bateko leinua, batasun
zeinua, ahotsik gabeko doinua.
Ondarea dute zimurretatik barreiat-
zen eta azal leuneraino iristen.
Hitzik gabe dira mintzatzen eta
ukituz maitatzen, gorputz-adar
oratzaille bi.
Zabaldu, batu, eskuarki heldu, jaso
eskumenka eta inoiz ez askatu
esku biluzi zintzoak.

Oliva Mariezkurrena, **mende** oso bat Igoatik Berastegira

Mende oso bat bete du Berastegin bizi den baina sortzez igoarra den Oliva Mariezkurrenak. Berastegiko Aldin elkarteak argitaratzen duen AIDANEN aldizkarian egin zioten elkarrizketan Mariezkurrenaren eta bere familiaren historia jasotzen du.



Irudian, Oliva Mariezkurrena bere alaba eta bilobarekin, eta Amaia Azkue Berastegiko alkatearekin

Igoako Salbadorren Bordan jaio zen, hamabi senideen artean zaharrena. Ama Igoakoa zuen, Maria Antonia Etxegia, eta aita Eratsungoa, Antonio Mariezkurrena. Ezkondu eta Igoan jarri ziren bizitzen. Erbitira joan behar izaten zuten eskolara, bera berrogei egunez bakarrik joan zen.

Frantzisko Zubillaga arrarastarrarekin ezkondu zen 19 urte zituela, eta Arrarasko *Etxeberri* etxean jarri zen bizitzen. Ardiak zituzten etxean, eta udan Otsolan izaten zituzten.

Gerra zibila hasi zenean bi ume zituzten eta Arraratsen bizi ziren orduan. Mutilak soldadu izateko eramaten zituztela gogoratzen du, baita ikuiluko txekorrek eta txerriak ere. Soldaduek go-

sea zutela, eta haiek etxean ere bai.

Hamabi seme-alaba izan zituzten Mariezkurrenak eta Zubillagak. Haiek hazterako bazegoen eskola Arraratsen, 14 urte bete arte. Gero lanera joaten ziren, basora. Lan gogorra zen, baina ez zegoen besterik. Frantzisko senarrak Iratiko basoan egin zuen lan gaztetan, eta ederki erakutsi izen semeei.

1956an eurek etorkizuna izan zezaten Berastegira bizitzera joatea erabaki zuten; maizter bila zebilen baserri batera, *Gorostizura*. Ganadua oinez eraman zuten Berastegira. 1972an, ordea, Osingainera igaro zen familia. 1998etik bere alabarekin Lurgainen bizi da.

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztedanoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan.

Koordinatzaileak: **Lur Gil Rey eta Iosu Martinez Urdaci.**

Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U

Lege gordailua: NA 721/93

2016KO APirilAREN 7AN INPRIMATEGIRA BIDALIA.



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) **diruz lagundua**



KULTUR EKIMENAK

MAIATZA

Erakusketak

Maiatzaren 9tik ekainaren 11ra
LARRAINTZARKO ESKOLAKO 50. URTEURRENA
 Larraintzarko eskolako bizipenen islada izango dugu ikusgai argazki erakusketa honetan Milesker argazkiak helarazi dizkiguzuen guztio!!!



BIGARREN ARGAZKI LEHIAKETA
 PULUNPEK argazki lehiaketa bat antolatu du aurtengo ekitaldirako.
LEHIAKIDEAK: Hemen bizi den edonork har lezake parte baina gutxienez urtebete behar du hemen bizi dela. Errol-daren bidez ziurtatuko da baldintza hau.
 Argazkiak aurkezteko epea: maiatzaren 22a.
 Lehiakide bakoitzak bi argazki bakarrik aurkez ditzake.

SARIAK:
 Lehen saria:.....300 euro
 Bigarrena saria.....200 euro
 Hirugarren saria.....100 euro

Lehiaketako arauak nahi dituenak eska ditzake helbide honetara, eta emailaz igorriko dizkiogu: ametzake@gmail.com edota www.ametza.eus webgunean izanen dituzu.

AMEN ARTEAN



HAZKUNTZA
 TALDEA SORTZEKO
 BILERA:

NON BELDURRAK, ZALANTZAK, KEZKAK, BIZIPENAK...

ELKARTRUKATUKO DIREN.
 NON AMATASUNAREN BAKARDADEAN ULERTZE ETA BABESA SENTITUKO DEN.
 NON HITZ EGITEKO ETA LAGUNDUTA EGOTEKO BEHARRA ASETUKO DEN.

NON PROTAGONISTAK GUK, AMAK, ETA GURE SEME-ALABAK IZANEN GAREN.
 MOMENTU BAKOITZEAN INTERESATZEN ZAIZKIGUN GAIEI BURUZ ELEKATZEKO TOPAKETA LIBRE ETA INFORMALAK.

GAI HAUEK IZAN DAITEZKE: EBOLUZIO PROZESUAK, LOA, TXERTOAK, ELIKADURA...

HELBURA DA:
 INFORMAZIO GEHIAGORAKO EDO IRADOKIZUNAK JAKINARAZTEKO:
 TELEFONO HONETARA DEITZEN AHAL DA: 948 30 53 53



19:00 **LARRAINTZAR** 13

KONTZERTUA
TXARI ELETA ... MAITEKIRO - DÉJATE LLEVAR...

Hainbat proiektu musikaletan aritu ondoren bere lehendabiziko bakarkako lana aurkeztuko digu Txari Eleta Villabonak, CD bikoitza da, doinu eta estilo desberdinak dituena. Hainbat artisten laguntza eta parte hartzea izan du, horietako batzuk izanen ditu ondoren: Iñaki Galkoa gitarra jolea, Iker Huitzi musikari-abeslaria, Kontxi Eleta, Blanca Ines Rubio... melodia atalak, sakonak, lasalak, Tibeteko karkuen soinua... denetarik izanen da

19:00 **LARRAINTZAR** 20

ETXEBIZITZARI BURUZKO MAHAI-INGURUA

Erraza al da gaur egun etxebizitza lortzea eskualdean? Zelan da errealtatea? Jabetza pribatua? Babes Ofiziala? Alokairua? Kooperatibak? Galari buruzko solasaldia, inguruan emandako adibide ezberdinen azalpenekin. Bertan: Imozko alkatea, Basaburuko ordezkar bat eta Ultzamako udal arkitektoa izanen ditugu. Parte hartze irekia; norberaren esperientzia, zalantzak, galderak... mahai gaineratu ahal izateko hitzordua.

19:00 **LARRAINTZAR** 27

HITZALDIA / CHARLA - Ainaro Asociación ARREA

"LANDAREAK SENDATZEKO LANDAREAK"
 Baratzaren osasuna. Landareak indartzeko eta baratzetako eta lorategietako gaitasunak ekiditeko prestakinak

Rizarotzen 2016-05-15

Haurren Eguna

Puzgorriak egun osoan zehar

12:00 Pileta partida

12:30 Dantzariak

13:00 Jolasak

13:30 2015 urtean

14:30 jaietako hurrei zapi banaketa

15:00 Aurpegi margoketa eta bizikleta zirkuluaren
 "taskeko hurren eta hidi mantoiak"

17:30 KIDAM magoaren ikuskizuna

18:30 Txokolat

#EskerriAskouPN

Muerte entre las flores

IKUS AMETZA.EUS WEBGUNEAN "BI AHIZPAK" EKOIZETXEAK PRESTATUAKO BIDEOA

RUGBY AREN GAUPASA 16

MAIATZAK 14 LARRAINTZAR

APERTURA KANTU ZAHARRAK SORPRESAK

20.30 KARPA LOS TAU...
 NAFAR MEX

21.30 FRONTIA ZIKIRO AFARIA
 +KANTU ZAHARRAK SORPRESAK

00.30 FRONTIA OHETORRIARE
 AFALTZERA ETA

00.30 KARPA LUR BULTZATU
 ERBUGBIA

ZIKIRO AFARIA
 +KANTU ZAHARRAK SORPRESAK

BRT divertis

Mende erdi ikasten, irakasten, bizitzen

Herrien bizitzaren oinarritzko zati bat dira ikastetxeak; komunitatearen bizkar-hezurra, askotan. Milaka guraso, ume, irakasle, kultur ekimen... denetarik ikusi ditu Larraintzarko ikastetxeak azkeneko 50 urteetan. Milaka bizipen, pasadizo, liburu, jolas... eskualdeko bizilagun askoren memorian betirako geratu direnak. Ezin guztia bi orrialdetan kontatu, beraz lagun batzuekin hitz egin dugu. Ekainaren 11n egingo den festara animatu nahi zaitugu.



Guztion bizitzaren zati garrantzitsu bat betetzen du eskolak: txikiak ginenean ohetik altxa, dutxatu gosalduta eta eskolara! 1966. urtean klaseak hasi zirenetik, gauzak dezente aldatu dira, baina funtsean, goizean goiz esnatu behar... Eskolak erronka handiak bizi izan ditu haren historian: hasieran zailak, D ereduaren ezarpena, Larraintzarren euskarako eredu geratu zenean...

Baina, azken finean, txirrina jotzen duenean, denok etxera bueltatzen gara...

DATUAK:

Larraintzarko ikastetxera Ultzama, Odieta, Atez, Burutain, Eusa, Enderitz eta Lanzko ikasleak etortzen dira, guztira 40 bat herritako neska-mutilak. Basaburuko ikasleak Jauntsaratsen egiten dituzte Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasketak eta Bigarren Hezkuntza egitera Larraintzarra joaten dira. Gaur egungo ikasleen kopurua 290koa da: Haur Hezkuntzan 70, Lehen Hezkuntzan 129 eta 91 Bigarren Hezkuntzan. Klaustroko kideak 31 irakasle dira. Ikasle guztiak autobusez etorri eta joaten dira eta bazkaltzen ere bertako jantokian geratzen dira.

LUIS LIZARRIBAR, IKASTETXEKO ZUZENDARIA:



bertan hasiko diren eta ia 20 urtez eskatzen egon

Denbora dezente darama Luisek zuzendari lanetan. Kontu asko azpimarratzeko, baina berarekin, batez ere eskolak gaur egun dituen erronkei buruz hitz egin dugu. Lehenengo, ekainean diren obrak: "Asuntua aurrera doa eta espero dugu ikasturtea amaitu aurretik obrekin hastea, horrela behingoz kenduko dituzte eta orain "8 bat ikasgela eta psikomotritate gela handi bat eraikitzea da ideia nagusia". Horretaz gain, azkeneko hilabeteetan eskolaren izenaren inguruan ere mintzatu gara, Luisek komentatu digu, oraindik ez dela ofizialki aldatu, "arazo burokratiko batzuk direla eta: legalki bi ikastetxe desberdin gara baina egunerokotasunean, kudeaketan, bakar bat izango bagina bezala funtzionatzen dugu". Urteurrenaren harian, antolatu diren ekimenez gain, Luisek Ultzamaldeako jende guztia gonbidatu du ekainaren 11ko festara.



PATXI URRUTIA, ATEZAIN OHIA:

Zazpi bat urte eman zituen Larraintzarren lanean, baina ahaztu ezineko oroimena utzi zuen guztion memorian. "Egia esan, urte horiek "de la ostia" izan ziren niretzat. Ultzamatik Iruñera itzuli nintzen lanera eta beste lekuetan ez nuen holako giroa aurkitzen: hemen oso gustura nengoen jendearekin, familia bat bezala ginen. Haurrek oso hurbilak ziren nirekin eta txiki txikitatik egiten zenuen erlazioa haiekin.



Neskato koadrila honen identitatea ez dugu jakin. Lagunduko diguzu? PULUNPE@GMAIL.COM. Urteurrena dela eta, hamaika ekimen antolatu dira, besteak beste, Gizarte etxeko argazki zaharren erakusketa.

CRISTINA MARCOTEGUI, EDUARDO MARCOTEGUI ETA RESU GOÑI ESKOLAKO LEHENENGO ATEZAINEN ALABA:

Eduardo eta Resu 1966 eta 1977 ikasturte artean izan ziren atezain. Lau seme-alabarekin iritsi ziren, eta horietatik zaharrena DBHko lehen mailan hasi zen, eta bosgarrena hantxe jaso zen). Hasiera batean haien lana atezaintza izan zen, baina gero garbiketa lanak ere egin behar izan zituzten; ordura arte lan horietaz Auzako Felipe eta Ignacio arduratzen ziren. Eduardo eta Resuk se-

me-alaben laguntza izaten zuten, aulkiak igotzen, komuneko papera komunetan jartzen... "Atezainen seme-alabak ginenez, pribilegiatuak ginen ez baikenuen autobusa itxaron behar, goiz altxatu ere ez, eta elurra egiten zuenean klaserik ez zegoenez, futbol zelaiko elur guztia gurea zen; asteburuetan ere futbol zelaia eskura genuen, eta lehen hauteskundeak bizi izan genituen: boto-paperak, hauteskontziak, kabinak..." Azken urteetan, haien alaba Maite bertan irakasle izan zen lehenago bere irakasle izan ziren batzuekin batera.

IXABEL OIARTZUN: IRAKASLE OHIA:


Urte luzez egon zen lanean Isabel Larraintzarren. Bere begi aurrean aldaketa handiak pasatzen ikusi zituen: "hasieran dena memoriaz ikasten zen eta, gero, irakasle on askori esker, pertsonak trebatzen saiatzen ginen". Aldaketak, adibidez, sexuen arteko erlazioan: "lehen nesken eta mutilen eskailerak zeuden" eta elkarrekin nahastea kostatu zen dezente". Denboraren poderioz amantalen erabilera ere atzean geratu zen, "neskak arrosa eta mutilek urdina", Isabelek gogorarazten digunez,

pasadizo dibertigarri bat gogoratu du: "15 bat urteko neska mutilek oraindik amantala erabiltzen zuten eta galdetu genien, "baina nola da posible oraindik zuek halako arropa eramatea? Kontua da tabakoa ezkutatze oso aproposa zela! Barren artean gogoratu dugu ere nola behin ikasleen arteko "tranpa" sistema bat aurkitu zuten: "Egun batean ikasle batek onartu zuen lagunen artean banatzen zutela etxeko lana eta klase aurretik, autobusean zetozela, denek koptatzen zioten elkarri. Sistema horrek kale egin zuen haietako bat gaixotu eta autobusean etorri ezin izan zuenean..."

50. URTEURRENEKO FESTAREN PROGRAMAZIOA

12:00 Hitzaldia eta aurrekua
12:15 LIP DUB aren aurkezpen mundiala!!
12:30 Eskolatik ibilbide gidatua
12:30 Zunba, judo eta euskal dantzen emanaldia
14:00 Bazkaria
16:00 Ginkana, tailerrak eta musika
Egun osoan puzgarriak.
Goizean argazki erakusketa ikusteko aukera egongo da.
BAZKARIRAKO tiketak, Apeztegi berrin, Lizasoko dendan, Larraintzarko Bentako tabernan eta Larraintzarko eskolan. Helduak 20€, haurrak(12 urte arte) 10€

Larraintzarren komunikazio ekimenak betidanik egin dira, "Miru" aldizkaria eta "Txutxumutxu" irratia azken urteetan egin dira, baina nork gogoratzen al du "Aldizkari" egiten zenean? Ametza.eus webgunean dituzu pare bat ale ikusgai.



Emakumeak eskualdeko kontzejuen heren batean alkate

Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzaman 12 emakume dira kontzejuetako alkate, guztien %22. Udaletan ezberdina da kontua, 7 udaletatik lautan baititugu emakumeak alkate: Anue, Basaburua, Lantz eta Ultzaman.



LANTZEN, BIZTANLEEN “%100EN ORDEZKARI”

150 biztanle inguruko udala da Lantz, eta Isabel Baleztena da alkate, azken hauteskundearen bigarren deialdian aukeratua.

ANUE, %5,6

Anueko zazpi kontzejuetatik bakarrean da emakume bat alkate. Egozkueko alkatea da Alizia Ripa, eta 26 biztanle baino ez ditu herriak. 462 biztanle ditu bailara osoak, beraz, esanenezake bailarako biztanleen %5,6 baino ez duela ordezkatzeko alkateak.

Txanponaren beste aldea udalari dagokio, Anueko alkatea emakumea baita, Maider Otxandorena.

BASABURUA, %13,3

Itsason eta Arraratsen baino ez daude emakumeak kontzejuburu. Mari Jose Mariñelarena da Itsasokoa, eta Erruki Ezkurra Arraraskoa. Bien artean 116 biztanle ordezkatzeko dituzte, eta 870 inguru ditu Basaburuak. Hala ere, Anuen bezala, hemen ere bailarako alkatea emakumea da, EH Bilduko Esther Lakasta.

ULTZAMA, %28,2

Ultzamako datuak berdintasunari gehiago hurbiltzen zaizkio. Hiru herritan dira emakumeak alkate, nahiko handiak diren herrietan gainera. Hala ere, 14 kontzeju ditu Ultzaman, eta hiritan baino ez dira emakumeak kontzejuburu. 1.660 biztanle inguru dira, eta 470en ordezkari dira, %28,2rena beraz. Nabarmenezkoa da hiru emakume alkateetatik bi oso gazteak direla, Iraizozko Maitane Arbilla Villanueva eta Eltzaburuko Laura Errantz Oiz. Hirugarren alkatea Eltsoko Yolanda Erize Osinaga da.

Ultzamako alkatea ere emakumea da, EH Bilduko Arantxa Martinez Urionabarretxea.

ODIETA, %31,6

Emakumeek ordezkari izatea handiena duen bailara Odieta da (Lanzko kasua kenduta, herri bakarria baita). 8 kontzejuetatik hirutan dira emakumeak buru: Erripa, Gendulain eta Gaskuen: Saioa Morrondo Oartzun, Arantxa Aznar Goñi eta Maria Larra-

ñeta Oartzun hurrenez hurren. 115 biztanle ordezkatzeko dituzte, bailarako dituen 364etatik. Bailarako alkatea, ordea, ez da emakumea, talde independentea Alberto Urdaniz Elizondo da.

IMOTZ, %10,1

Kontzeju bakarrean da emakume bat alkate Imotzen. 8 kontzejuetatik, emakumea alkate duena Eraso da, 44 biztanleko herria. Maialen Carpintero da bertako alkatea. Imotzek 434 biztanle dituela kontuan hartuta, emakumeek bailarako biztanleen %10,1 baino ez dute ordezkatzeko. Bailarako alkatea ere gizona da, EH Bilduko Joxean Iturralde.

ATETZ, %0

Ez dago emakume alkaterik Atetzen. 7 kontzeju daude, eta ez kontzejuetan ezta udalean ere ez dira buru, udaleko alkatea EH Bilduko Ezekiel Martin da. Gizonek dute “boterea” Atezko udalean zein herrietan.

Instituzioetan berdintasun egoeran egotetik urrun gaudela erakusten digute datuok. Historikoki gizonak izan dira herrietako batzarretara joan direnak etxeetako ordezkari gisa. Oraindik ere mantentzen da ohitura hori, nahiz eta aldaketaren bat eman den. Baina herrien buru gizonak dira oraindik ere kasu gehienetan.

Nabarmenezkoa da, hala ere, 7 udalerritatik lautan emakumeak direla alkate, udalen %57,1ean. %50etik gora dagoen datu bakarria da honakoa. Udaletxetan lan egiten duten langile gehienak ere, idazkari eta administrariak emakumeak dira, hau ere konstante bat da inguruko udalerriri eta beste estatuaren ere.

Imotzen euskararen alde berriz ere

Askotan turismoa bultzatzea izaten da helburu nagusia, baina bere alde onak dituen arren, alde txarrak aztertzea ez dago gaizki. Baztanen, Lekarozko hirigintza proiektu berria egin aurretik, Baztango Udalak aztertu egin du 228 etxebizitza berri eta hotel bat egiteak nola eragingo liokeen euskarari. Eskualdeko proiektua ez den arren, interesgarria izan daiteke etorkizuneko proiektuendako.



Berriak dira gisa horretako azterketak. Gipuzkoako Aldundiak, Uema Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak eta Kontseiluak sortu zuten ELE eragin linguistikoaren ebaluazioa orain bi urte. Asmoa da aztertzea zer eragin duten hirigintza proiektuek eta hizkuntzaren aldetik, prebentzio gisa; alegia, plan horiek ingurumenaren eragina aurretik aintzat hartzen duten bezala, gauza bera egitea hizkuntzarekin.

Hirigintza eta demografia aldetik, munta handiko proiektua da Aroztegikoa. Horregatik erabaki zuen Baztango Udalak eragin linguistikoa ebaluatzea, proiektuak «udalerrian leharkean hizkuntza eraginaz

kezkaturik».

Jende multzoari dagokio lehen ondorioa: nabarmen handituko da biztanle kopurua. Hotelaz gain, 228 etxebizitza egiteko asmoa dute; batez beste bakoitzean hiru lagun biziko direla joz gero, 684 lagun dira -Lekarozen 341 lagun bizi dira; Aroztegi, bikoitza izan liteke kopurua-. Baztan osoa hartuz gero, %9 biztanle gehiago izango lirateke.

Beste jende mota bat espero dute Aroztegi: beste leku batzuetatik heldutako familiak, «atsedena eta aisialdia» nahi dutenak, ziurtzat jo dute ingurune erdaldunagoetakoak izango direla. Euskarari dagokionez, horrek eragin handia izango du Baztanen.

Turistak batu behar zaizkie biztanle berriei -135 logelako hotel bat dago planean, lau izarrekoa-; gehienak erdaldunak izango direla diote. «Argi ikusten da, biztanle izan zein ez, orain arteko hizkuntzaren egoerari nabarmen eragingo diola esku hartze horrek».

Hezkuntza da beste aztergai bat: Aroztegiko biztanle berriek haurrak Baztanen eskolatzeak zer eragin izango lukeen. Gazteen artean erabat nagusi da euskara Baztanen, baina familia erdaldun asko heltzearekin alda liteke hori. «Elizondoko eskolan iraungitzeko bidean dagoen A eredu berrindartzea litekeena da».

Imotzen euskararen alde berriz ere



Odietan hilabete batzuk lehenago egin bezala, Imotzen ere bertako herrien izenarekin seinale batzuk margotu zituzten. Seinaleak elkarrekin jarri zituzten gero, bailarako herri bakoitzaren norabidea erakutsiz. Parte-hartze polita izan zuen ekimen horrek.

Jan eta edanaren tartea iritsi zen gero. Patata tortilla txapelketa izan zen eguerdian eta jarraian bazkaria. Jende gehien elkartu zen unea izan zen hau, eta arratsaldean ere geratu zen jendea ondorengo ikuskizunak ikustera. Hodei Magoa eta Tiritatxo izan ziren lehenbizi, Larraintzarren ere egonak ziren, eta gero “Dantzaren enparantza” musikariak.

Egunari amaiera polita emateko, egur labean eginitako ogitarteko ederrak jan zituzten. Probatu zituzten artean oso goxoak zeudela aipatu zuten. Beraz, honela eman zioten amaiera aurtengo ekitaldiari, heldu den urtean berriz elkartuko diren ziurtasunarekin.

Gure errugbia laguntzeko gaupasa



Iritsi da aurtengo errugbi gaupasa. Maiatzaren 15ean izanen da Larraintzarko Ultzama pilotalekuan. Egitarau polita pres-tatu dute BRT Mendi-tarrak errugbi taldeko kideek, Los Tajudos del

Norte, Oharkabe, Lur J eta Skarmentu taldeen kontzertuekin. Zikiri afaria ere egonen da. Antolatzaileek ohartarazi dute ezinbestekoa dutela errugbi gaupasa ongi ateratzea, errugbia kirol eskaintza gisa mantent-

zeko oinarri ekonomikoa jasotzen dutelako bertatik.

Taldearen kirol egitura urtez urte handituz doa eta lehen mailako eta kadeteen taldeez gain, aurten 16, 14, 12 eta 10 urtez azpikoekin ere lanean ari dira. Egitura honen sostenguak giza eta ekonomi ahalegin garrantzitsua eskatzen du. Gaupasa honetan aurrekontuaren ia %50 daukate jokoan, beraz parte-hartzea eskatzen dute.

Dagoeneko 12 urte daramate jai honekin, aurtengoa 13.a izanen

da, eta ez da seguru 14. ekitaldirik egonen den. Segurtasun, antolakuntza eta ardura arloan eskatzen dizkieten eskakizunak gero eta gehiago dira eta. Hala ere, taldetik prest daude lanean jarraitzeko besta hau aurrera ateratzeko, baina parte-hartzea ezinbestekoa da.

Afarirako txartelen salmentak oso motel doazela ohartarazi dute. Besta hau ongi ateratzeko eta guztiok ongi pasatzeko oinarria afaria da, eta 300 afarikidera iritsi ezean kontuak ez dira ateratzen...

Ultzuetaren fakturak garesti samarrak

Horixe da Ultzama, Anue eta Odietako bizilagunen iritzia. Ur mankomunitate berriaren lehen fakturak iristen ari dira, eta lehen baino garestiago ari zaie ateratzen uraren kontsumoa.



Hiru bailaren arteko mankomunitatea egiteak gastu ugari ekarri ditu. Hala ere, gastuen %80 Nafarroako Gobernuak ordaindu ditu, eta gainontzekoa hiru bailaren artean, biztanle kopuruaren arabera. Ur garbien guneaz gain, kanalizazio berriak egin behar izan dituzte eta gehiago ere egin beharko dituzte herri guztietara iristeko. Eta mankomunitatearen kontuak kudeatzeko langile bat ere kontratatu da. Honek guztiak gastua areagotzea ekarri du, jakina.

Biztanle askok diote ez zegoela beharrik halakorik egiteko, lehenengo sistemarekin ongi funtzionatzen zutela. Dena den, Europar Batasuneko araudiek uraren kalitatea frogatzea eskatzen dute, eta lehen bezala, herrietan zeuden iturrietatik hartuta ez zegoen frogatzerik. Honela, gutxika, uraren konpetentzia urruntzen joan da: kontzejuetatik udaletara, eta udaletatik udalen mankomunitatera.

Errenta aitortpena euskaraz, zergatik ez?

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak, bertako kide diren udalekin elkarlanean, errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina jarri du abian aurten ere.



Kanpaina berri honekin, herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskarazkoak izan daitezkeen bultzatu nahi da. Bide horretan, errenta aitortpena euskaraz eginda euskarari bide berriak irekitzeaz gain, administrazioaren euskalduntzea ere bultzatzen da.

Ohi bezala, aurten ere, errentaren gaineko aitortpena egiterakoan, zergadunek hainbat bide dituzte euskaraz egiteko, eta oso modu errazean gainera: lehen urratetik zein hizkuntzatan egin nahi duten aukera dezakete, hau da, euskaraz egiteko ez dago inolako zailtasunik.

Isuna jarri diote Ultzaman baimenik gabe arrantza egiteagatik



A nuko biztanle bat harrapatu zuen Foruzaingoak altzoan 5 amuarrain zituela. Belate inguruan antzeman zuten 61 urteko gizona. Bizilagunen batek polizia deitu omen zuen baimenik gabeko arrantza egiten ari zirela salatuz. Gogora dezagun urte sasoi honetan ezin dela amuarrainik arrantzatu. Arrainak 9 eta 17 zentimetro artekoak ziren. Foruzainek gizona autoan sartzen zegoela antzeman zuten eta Nafarroako Ehiza eta Arrantza Legearen aurka joategatik isundu zuten.

Eskualdeko basozain batekin hitz egin dugu guk, eta problematika hau argitara emateko albiste hauek agertzen direla esan zigun: "Jendea ikaratzeko agertzen dira halako

albisteak noizean behin". Eta badirudi funtzionatzen duela, esan baitigu baten bat baimenik gabeko arrantzan edo ehizan harrapatzen badute ere, gutxira doan kontua dela: "Geroz eta gutxiago jazotzen dira halakoak". Zergatiaz galdetuta, basozainak erantzun digu zenbait faktore daudela bertan: "Alde batetik kontzientzia ekologikoa handituz doa; bestetik, bizimoduaren aldaketa handia gertatu da, naturatik geroz eta "deskonektatuagoak" bizi gara eta, orokorrean, mendira, gutxiago ateratzen gara..."

Horretaz gain, basozainak beste elementu bitxi bat aipatu digu; baimenik gabe ehizaren alde "soziala". "Lehenengo garaietan arrantza edo ehiza lagunartean elkartu eta merendu bat egiteko aitzakia zen. Halako topaketak mantentzen badira ere, orokorrean gutxituz doaz..." Basozainak azpimarratu digu kontsumo pertsonalerako egiten dela ehiza mota hau eta ez merkatu beltzean saltzeko. Lehen halako merkatua bazegoela aipatu digu, baina orain, zerbait bada, baina, gehienbat etxerako kontsumorako izaten da.

Adi liztor asiarrarekin



Udaberrian sartuak, uda ate joka dugu, eta horrekin batera, beroa, oporrak eta halakoak. Baina azkeneko urteetan beste bisitari bat dugu gurean, liztor asiarra. Noizean behin intsektu honen inguruko albisteak argitaratzen ditugu, eta garrantzitsua iruditu zaigu orain ere egitea: arrazoia? Udaberria dela liztorrak harrapatzeko momenturik hoberena. Geroago beranduegi

baita izurritea kontrolpean izateko.

Datu batzuk prestatu dizkizugu kontutan izateko.

-Adituen ustez, urtean 50 kilometro gehiago hartzen ditu "inbasioak".

-Ultzaman kontu hau daraman Iñako Zubillagarekin hitz egin genuen lehenengoan eta esan zigun momentuz ez duela inolako abisurik jaso. Edozein kasutan, asiar liztorra ikusiz gero, deitu Ultzamako udaletxera 948 30 51 15

-Negua igarota, martxan jarria da berriro ere Asiako liztorraren bizi zikloa.

-Negua gaintzea lortu duten erreginak habia egiten hasiko dira orain.

-Euskal Herriko zazpi herrialdeetara hedatu da liztorra, eta kontrolik gabe zabaltzen jarraitzen du.

-Ernesto Astiz erlezain nafarrak, liztorraren aurkako borrokan, orain arte ikusi dugun sistemarik interesgarriena martxan jarri du. Ametza.eus webgunean itsatsi ditugu haren bideoak.



Internet bidezko iruzurrak, geroz eta konplexuagoak

Lehenengo batean ezagun batek kontatu zigun Basaburuko beste bati gertatutakoa: helbide elektronikoan haren bankuak 10.000 € eskatzen zizkiola... Duela hilabete gutxi, eskualdeko langile bati ordenagailua blokeatu zioten lapur batzuek eta konpontzeko dirua eskatu zioten...



Gure gizartean geroz eta hedatua dago ordenagailuen erabilpena: eguneroko bizitzan eta lanean tresna nagusi bihurtu dira askorentzat. Eta beti gertatzen den bezala, geroz eta garrantzitsuagoa den heinean, "arazo" gehiago sortzen dira. Kontua da, duela urte batzuk arte, iruzur saiakerak nahiko inuzenteak zirela, orain aldiz, geroz eta konplexuagoak.

Igoako ezagun horren helbide elektronikoan sartu ziren gaizkileak eta miatzen egon ziren zerbaite "interesgarria" aurkitu arte; kasu honetan, auto bat erosteko bankuari eskatu zion mailegua. Ultzamako langilearen kasuan, "Correos"ko mezu elektroniko bat jaso zuen hartu gabeko gutun bat zuela esanez. Ez zekiela zeri buruz hitz egiten zioten erantzun ondoren, ordena-

gailua blokeatu zitzaion. Konponketa hori ezin da egin, disko gogorra "enkriptatua" baitago eta hori desblokeatzeko diru kantitate altu bat eskatu zioten.

Arazoak ekiditeko aholkuak

Geroz eta jende gehiagok erabiltzen ditu teknologia berriak. Horregatik, zuhur ibiltzea da aholkurik sendoena; ezagutzen ez duzun pertsona baten mezuak ez irekitzea, itxura arraroa dutenak. Nolabait bizitza "errealan" erabiltzen dugun sistema bera.

Halere, badaude zenbait puntu zehatz komentatu daitezkeenak:

-Helbide elektronikoaz gain, kontuz ibili telefonoekin eta baita sare sozialak nola erabiltzen diren: geroz eta eraso informatiko gehiago bide horietatik jasotzen baitira.

-Ikasi behar da helbide arraroak, ezagutzen ez dituzun kontaktuak, zentzu askorik gabeko mezuak... eta halakoak ekiditen.

-Segundu batzuk pentsatzea da batzuetan hoberena: nork bidaltzen dizu mezu hori? Mezuaren jatorrian dago askotan gakoa.

-Zure datu pertsonalak ziurrak diren webguneetan sartu. Ez sartu datu garrantzitsurik beste inon.

-"Antivirus" deitutako programa eguneratua mantendu ezazu.

Artikulutxo hau bukatzeko, azpimarratu nahi dugu zein garrantzitsua den tentuz ibiltzea saretik. Gogora dezagun sen ona izan daitekeenela Sareko gure lagun hoberena.

Kanping berria Atetzen



Maria Gaston Valenzuela eta Soledad Calzado Onieva bailarako bizilagunak dira proiektu honen bultzatzaileak. Hemendik gutxira hasiko dira Aroztegin kokatuko den kanpinan obrak. Berrikuntza nabarmena ekarriko du bailara, bisitari ugari jasoko dituela uste baita. Eta ez hori bakarrik, kanpinak eskaintzen dituen zerbitzuak ere bertako biztanleendako erabilgarri egonen dira. Kanpinak izaera ekologikoa izanen du, eta berezitasunetako bat naturarekiko duen gertutasuna da. Horrek mendi ibilbideak, bizikleta ibilbideak eta halakoak egiteko aukera ematen die bisitariei.

Legearen arloan ere berezitasun bat dauka, Lan Sozietate Mugatuko izaera eta bi pertsonaz osatutako lehenengo enpresa da Nafarroan. Hala ere, bost pertsona dira kanpinaren egitasmoan parte hartzen dutenak.

Egitasmoa gustatzeaz gain, bi arrazoi nagusi jartzen dituzte honelako proiektu bat bultzatzeko. Alde batetik, bailaran bizi eta lan egin ahal izatea, etxetik gertu izatea lana, eta honela familiarekin kontziliazioa egin ahal izatea. Eta bigarrenik, bailarari zerbitzuei dagokienez ekarpena egitea, kanpinak izanen dituen denda, jatetxe, kirol instalazio eta abarrak biztanleen esku jarritz.

Zaldi heziketa naturala ikastaroa Beramendin



Apirilaren hasieran Beramendiko biztanle batek zaldi heziketa naturala erakusteko ikastaroa antolatu zuen. Asteburu bat erabili zuten hori egiteko. Eskualdetik kanpoko koadrila bat elkartu zen: Usurbil, Baztan, Larraun, Aldatz eta beste herritatik etorri zen jendea, eta ez zuten, hasieran pentsatu bezala, antolatzaileen etxean lo egitera geratu, "nahiz eta berez aukera hori izan".

Marta Garcia duela pare bat urte bizi da Beramendin eta zaldiak izugarri maite ditu. Eguraldi ona lagun izan zuten eta jendea "oso motibatua" zegoela esan digute. Gure eskual-

dean bide eta mendi asko ditugu eta bertan zaldiekin ibiltzeko primeran daude, nahiz eta oraindik ideia hau gehiegi aurreratua ez egon. Marta "pozik" azaldu da ikastaroa nola joan den, eta adibidea jartzen du bere behorretako baten eboluzioan: "asteburu hori arte inoiz ez ginen bere gainean ibili eta ikastaroan ikasitakoari esker, oso lasai eta konfiantzaz ibili daitezke berarekin orain".

Lehenengo aldia izan da halako ikastaroa antolatu dutela eta praktikaz gain, teoria pixka bat ere ikasi zuten eta baita filme bat ikusi ere. Aipatu behar dago ikastaroa euskara izan zela.

Iritzia

Lapur onarenak



Anjel Lertxundi
BERRIA egunkarian

Lapur ona eta gaiztoa gurutze banatan, Jesus erdian dutela: pintore klasikoek oso estimatua zuten hiru gurutziltatuen estampa. Baina lapur onak eta gaiztoak daude? Moisesek Sinai menditik jaitzitako hamar mandamenduetako batek ez al zuen lapurreta debekatzeko? Lapur onak, ordea, erdian daukatenaren alde egingo baitu, Jesusen ko-

adrillan sartzea lortuko du: gaur gauean nire ondoan izango zaitut Paradisuan!

Lapur onaren narrazioko eskema aratz-aratz iritsi da gure egunetara: no lurralde kristauekiko ezker-eskuinetan, ondo koipeztatuta daude mekanismo ideologikoak norberaren lapurrak ontzat jo eta arerioarenak

Txerrenen sutara kondenatzeko. Rooselvetek Somoza diktadore odol gaiztoarengandik esan zuenak pitzadurarik gabe ilustratzen du eskema: «Agian Somoza putakume bat izango da, baina gure putakumea da». Kolore kontua da: Messiri ere errazago barkatzen diote Nou Campen, egingadako lana eskertu diote Sorriari Génova kalean.



Irudi batean



Historiaurreko aztarnak gurean (II)

Aurreko hilabetean Lantz, Anue, Odieta eta Ultzamako monumentu megalitikoak gida egin genuen. Oraingoan, eskualdeko bigarren zatiarena egin dugu, Atetz, Imotz eta Basaburua.

Monumentu ikusgarriak dira. Batzuk egoera onean mantentzen dira, baina beste batzuk ikusteko moduan ere ez daude, eta horrek horietaz ahaztera eramaten gaitu. Asko Basaburuko iparraldeko mugako mendietan kokatzen dira, edo Atetz-Ultzama eta Imotz-Xulapain mugetan, mendi gainetan. Hala ere, basoan ezkutaturik daude horietako asko, eta basoko xendetatik oso gertu. Zenbaitetan begi hutsez identifikatzea zaila izaten da, batzuen egoera ez baita ona. Beraz, balio dezala harri pila ikusten dugun tokian historia ikusteko.



Belarziketa | zutarria



Kosabel | trikuharri eta tumulua



Otsola | harrespila



Beigañe | trikuharria



Azerilar | trikuharria



Agorritz | trikuharria



Oriñ | trikuharria



Bi ahizpen sepulture | trik.



Elkorra | trikuharria



Alkardur | trikuharria



Iontza | harrespila



Eratsun-Igoa | trikuharria



Tantadi | trikuharria



Tantadi ipar | trikuharria



Perrarte | trikuharria



San Paulo | trikuharria



Beztaun | trikuharria



Arkatxiki | trikuharria



Kaateko soroa | tumulua



Patat-alor | trikuharria



Gurutzeondo | trikuharria



San Paulo | trikuharria



Beztaun | trikuharria



Arkatxiki | trikuharria



Gorosti | trikuharria



Auzaldia | trikuharria



Gurutzeondo | trikuharria



Gurutzeondo | trikuharria



Itxondo | etxola hondoa



Gorosti | trikuharria



Partzelaundiak | trikuharria



Hainbat monumenturen egoera kaxkarra: Apurtuak, desagertuak ala ezkutatuak:
 Askotan merezi duten garrantzia ez dlegu aman monumentu megalitikoak. Harri pila bat baino ez dugu ikusi duela mende ugari, gu orain bizi garen tokian bizi zirenek eraikitako santutegietan. Beraz, asko dira apurtuak dauden monumentu megalitikoak, landa bihurtuta, traktorea gainetik pasa dira askotan, lur azpian daude beste batzuetan, edo harriak harresi edo etxeetan berrabilak. Hona adibide bezala balio duten kasu batzuk:

GURUTZEONDO TRIKUHARRIA (BERAMENDI): 2009an aurkitu zuten trikuharria. "Hilariak" elkartearen ustez egoera onean mantentzen zenaren zantzuak zeuden, sastrakaren azpian egon arren. Gaur egungo argazkia ikusita, soro bat baino ez dugu ikusten, guztiz hondatuta dago gaur egun.

ATEZKO TRIKUHARRIAK: Atezten daudenetatik, bat bera ere ez dago ikusgai. Denak hondatuak edo lur azpian daude. Kasuren batean abereak banatzeko hesia ere gainetik dutela.

ERATSUN-IGOA TRIKUHARRIA: Basoko bide bat eraiki zuten trikuharria zegoen lekuan, harri pila bat baino ez balitz bezala, harriak mugituz eta pistari bides eginez.

Auzalor | trikuharria



Angaitza | zutarria



Angaitza | trikuharria



Beuntza | trikuharria



Txotxalabarrieta | tumulua



Beratsaingo Antsoneko etxeoandrea

Orain hiru urte gelditu zen alargun, Emilio Cabeza Cabrero bere senarra hil zenean. Maria Antonia Goñi Oiartzun dugu, sortzez Elkarteko Etxeberrikoa. Aita bertakoa eta ama, berriz, Erripako Karakoetxekoa. Ezkontzaz Beratsaingo Antsonera etorria. 70 urte ditu baina etxe zokoan aspertzen den horietakoa dugu: orain bertan josten ikasten Beuntzan egin duten ikastaro batean ari da, eta gainera, Atezko jueza da.



Antsonea, joan den udazkenean mahatsa amerikarrez estalia

Harrera bikaina egin digu bere etxean. Ez da harritzekoa, zaku bat kontu baitu kontatzeko. Haurtzaroaz galdetu diogu.

Zer familia zineten?

Gurasoak, izeba bat eta gero gu, bost senide. Nekazalgoan aritzen zen aita, laborea egiten genuen.

Eta eskolara, nora joaten zineten?

Aldi-baterako eskola izaten zen gure herrian, azaroa-apirila, 6 hilabete. Gero maiatza eta ekainean Añezkarra joaten ginen. Eta jakina, hamabi urte bai-

no lehen, hasten ginen lanean: alorrera, mahastira... **Haurtzaro motza eta lanera. Zuen etxean, beraz, ez zen lanik falta.**

Ez, ez, eta gainera gure aita ausarta zen eta alderdi hartan lehen traktorea berak erosi zuen. Eta etxe-koa aski ez eta herri askotara ateratzen zen lur lantzeraz eta horrela. Ultzamako herri askotara joaten ginen. Eta nik, zaharrena, 18 urtetan karneta atera nuen. Lur lantzen aritzeko karnetarik behar izaten ez zenez, lan horietan anaia aritzen zen, baina karreteraz ibiltzen ginenean nik gidatzen nuen traktorea, badaezpada.

BERATSAIN ZUEN ESPEROAN

Eta zuen harremana Atetz eta batez ere Beratsain herriarekin?

Badakizu? Gure amaren ahizpa bat Beratsaingo Errandonean zegoen ezkondua. Eta, pestetara-eta etortzen ginen. Gero mahatsa bidaltzen genien eta hemendik gaztainak biltzen zizkiguten. Harreman handia genuen. Eta gero handiagoa, jakina

Zer bada?

Beratsainen bazuten trilladora *Ajuria 0* bat; eta urte batez gariak busti eta gaiztoa jarri zuen ultziak egiteko eta horrela gu hasi ginen, gure trilladora *Ajuria 2* baitzen eta ahotza tuboen bidez sabaietaraino igotzen genuen gainera, maindireekin ibili beharrean. Badakizu zein nekosoa den lan hori? Beratsaindar-rrak hori probatu zutenean ia ez zuten lehengora itzuli nahi izan eta urtero etortzen hasi ginen. Berehala Iriberriko eta Eritzeko ultziak ere gu hasi ginen egiten.

Eta zu aitarekin batera ultziak egitera etortzen zinen.

Bai, tori! Ez, ez, familia osoa etortzen ginen, neska

eta mutil, denak etortzen ginen, traktorearen atzetik trilladora handi hura erantsita. Ikusgarria zen karabana hura karreteran mantso mantso! Trilladorak burnizkoak baitzituen gurpilak!

Lana bakarrik ez zen izaten. Mutil ongi ederrak ere izanen ziren Beratsainen.

Bai, tori, haiek, ea igande arratsalde non izan behar genuen eta guk erantzun: *Burladara joan behar dugu.* Burladara joan, eta haiek ere han. Eta gu ihesi, gordeka haiengandik ihesi. Ja, ja, ja, eta azkenean bi ahizpok Beratsaina ezkondu ginen.

Baina nonbait berriz ere elkartu zineten.

Bai, gure anaiak Beratsaingoekin ateratzen ziren eta horrela gu bi ahizpok ere hurbilean ibiltzen ginen. Hola pixkanaka hasi ginen bi ahizpok Emilio eta Miguel Anjelekin.

Eta horrela Kontxi Errandorena ezkondu zen bere lehengusu zuen Migel Anjelekin, eta gaurko gure protagonista, berriz, Emilio Cabezasekin, Antsoneko jabearekin.



Maria Antonia Goñi



Emilio Cabeza Cabrero

BERATSAINEN JARRI KABIA

Maria Antonia, nor genuen Emilio?

Emilio, 1936. urtean jaioa Madrilen eta hiru urte zituenean, gerrakoan, karrikan bere gurasoak tiroz hil zizkieten, umezurtz geldu zirelarik Emilio eta bere senideak. Eta gero, Nafarroako Providenciara ekarri zuten Emilio. Beste senideak nora eraman zituzten ez dugu inoiz jakin. Kontua da hona ekarri eta berriz bataiatu zutela. Hori da orain ikasi duguna.

Eta kontatu digu nola hamalau urtetan Oskozko Dindara ekarri zuten mutil, eta gero, soldadutza egin ondoren, Beratsaina etorri zen, Frantxenera. Ondoren, Azpikoetxera eta hemendik urtero joaten zen Frantziara oihanera, eta gero Ipar Ameriketara, Nevadara artzain. Bost bat urte egin zituen artzain. Handik itzultzean berriz ere Azpikoetxera bildu zen.

Ameriketatik etortzean hasi zineten elkarrekin.

Bai, aspalditik ginen ezagunak, baina orduan hasi ginen elkarrekin eta gero ezkondu ginen.

ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN ARITZEKO BOKAZIOA

Maria Antonia, zuk beti herriko gauzetarako zaletasuna izan duzu.

Bai, gazte-gaztetik, Elkartan ere aitari laguntzen nion Nafarroako Diputaziora herriarendako hainbat gauza egitera-eta. Gero, hemen, Beratsainen, hasieran ez nintzen deusetan sartzen, baina gero bai. Alkate izan naiz bi agintalditan eta baita depositaria ere. Orain kargu honetan, 16 bat urte daramat. Atezko Ibarrean, berriz, juez jarri ninduten eta badaramat hamar bat urte.

HIZTEGIA

ALORRA: pieza. Urtero lantzen den lur zatia
ULTZIA: Trilla, garia bildu eta aletzea.
BURNIA: Burdina.

Eta nola egin zineten Antsoneko jabe?

Nirekin hasterako Emiliok eresia zuen. Etxea lopeztarrena zen eta erre egin zen parte bat. Orduan Iruñera joan ziren eta saldu egin zuten. Nire senarra izanen zenak, Ameriketatik etorri zenean erosi zuen.

Etxea erosi eta laster ezkontza.

Bai, agudo hasi ginen elkarrekin eta, Iruñean ezkondu ginen, eskolapioetan. Urri baten hogeita hamaika zen.

Eta lanean, non aritzen zen?

Ezkondu eta lehenbiziko hamar urteak *Marmoles Aranan* aritu zen. Nik opatu nion lan hori. Eta enpresak porrot egin zuenean, fabrika batean sartu zen, *MIASAn*, Landabenen. Hemen jubilatu zen.

Eta etxean ez al zenuten nekazalgorik?

Lurrik ez genuen, alor bat ezik. Eta bertan baratzea izaten genuen. Izugarrizko leka, banabar, porru...biltzen genuen eta Iruñeko Merkatu berrian saltzen genuen.

Baratzea, herrietako lanak...eta beste lanen batean?

Bai, oraintxe bertan udaletxeko garbitasuna-eta, nire gain dut. Lehenago 25 urtez, uda guzietz, Iruñeko batzuk Ultzaman zuten etxe batera joaten nintzen lanera.

Antsoneko etxe atarira lagundu gaitu eta hor ere Atezko ibarrari begira beste hainbat kontu kontatu dizkigu. Izan dituen bi semeez eta abar. Hurrengorako beharko du.

UMEZURTZ: huerfano.

KABIA: Habia, euskara batuan.

IBARRA: Bailada, Valle.

“Antzoki huts bat ikustea deprimitzen nau”

Sopelakoa dugu Leire, baina Larraintzarko Gizarte Etxetik pasa zen apirilaren bukaeran “Zer duzu Amy” antzerkia aurkeztera. Antzerkiaren munduan beti krisian bizi da eta horregatik beste sektoreak baina azkarrago egin ditu aldaketak. Barre egiteko komedia bada ere badu bere zantzu filosofikoa ere, azpimarratuz gure gaitasunei garrantzi gehiago eman behar diegula.



Konta iezaguzu antzerki obraren inguruan...
Barrez lehertzeko komedia da. Bertan, pertsonai nagusia eta bakarra, Daisy Sagardotegi da, ahots ederrik ez duen baina abeslaria izan nahi duen tipa. Ahots baten bila Londresa doa, hango kanposantu batean dagoen Amy Winehouse kantariaren hilobiraino, haren ahots-kordak bereganatzeko asmoz... Eta ezin dut gehiago esan, baina tira, lelokeria bat bestearen atzean ordu betez... Hori bai, kutsu filosofiko apur batekin ere, eh?

Nolatan hori?

Amy Winehouse abeslaria oso gazte hil zen, drogekiko menpekotasuna zela eta. Musikaren kultura bada, “27en kluba” deitutako mitoa; 27 urte zituztela hil ziren musikariak: Janis Joplin, Jimi Hendrix, Curt Cobain, Jim Morrison eta Winehouse bera. Jende xumeok askotan uste dugu halako artistak oso zoriontsu direla, “guztia” dutelako, baina egia esan, arazo handiak dituzte: Janis Joplin bere gorputzarekin konplexu asko zituen, Hendrixek ez zuen haren ahotsa maite, Cobain oso bakarti eta depresiboa zen... Horrek eramaten nau errebindikatzen pertsonok baliabide asko ditugula eta askotan ez diogula garrantzirik ematen. Ez ditugu gure gaitasunak nabarmentzen eta gehiago egin beharko genuke.

Badaramazue proiektu honekin denbora dezente, ezta?


Arrakasta handiko antzerkia izaten ari da, bai, ahoz aho zabalduz doa, promozio lan handiegirik gabe. Gure ogibiderako oso garrantzitsuak dira zuena bezalako antzerki zirkuitu “txikiak”. Ikuskizun hau tabernetan, antzokietan, kalean... eskaini dut, formatu txikiak lana da eta. Antzoki huts bat ikustea deprimitzen nau ni eta horregatik erabaki nuen jendea ez bazen antzerkietara hurbiltzen ni izango nintzatekeela tabernetara hurbilduko zena.

Beste faktore bat kontziliazioa izan da: haurdun geratu nintzenez hasi nintzen proiektua lantzen eta. Nire kasa proiektua mugitu ahal izatea errazagoa egiten zait kontziliatzeko. Eraman-garriagoa da proiektua.



Agurrak, diosalak eta olesak (5)

Azkeneko Pulunpen hor aritu ginen hainbat agurtzeko modurekin. Gaurkoan hari segida emanez, beste hainbat agurtzeko formula ekarriko ditugu hona.



Hemen dugu Anjel Telletxea Leziaga, Igoako Irazabalgo bordakoa. Gizon xaloa benetan. Hau agurrik egin gabe ez zaizu ondotik pasatuko, ez horixe! Horrelako jende gutxi gelditzen da. PULUNPEtik gure agurrik bihotzkoena, Anjel!

Esaterako, ongi etorri erabileraz zerbait esan genuen. Baina zuri nonbait, bilera batean edo, esaten badizute *Ongi etorri!* zure erantzuna *Eskerrik asko* edo horrelakoren bat beharko luke.

Pozten naiz (zu ezagutzeaz) edo *atsegin dut* (zu ezagutzea) erabili beharko genuke norbait aurkezten digutenean. Eta erantzuna, *Ni ere bai*. Eta despeditzerakoan erraten al diozu *Urte askoz!* Edo *Anitz urtez!*

Eta oraintsu sartu den *Kaixo!*? Zein arrotza egiten zaidan hitz hau! Adineko jendeak ez du erabiltzen, jakina. Nik ere ez dut batere maite. Gaixoarekin lotzen dut eta gaixoa urrikal hitza da. Eta ez dut nitaz inor urrikal dadin nahi. Baina ez da horretan gelditzen kontu hau. Etimologista batzuk diote *Que hay de eso!* esaldiaren ordaina dela. Azkue handiak dio Gipuzkoa eta Bizkaiko hitza dela. Eta Sarasolaren hiztegian dator, hitz hori maila behekoa dela.

Norbaiti *adio* erraterakoan, pena ematen dit nola galdu dugun betiko formula. Guk erraten al diogu *bihar artio*, *etzi artio*... edo *gero artio* elkar noiz ikusi behar dugun ez badakigu. Baina, laster ikustekoak

HIZTEGIA:

ESAN Basaburua-Imotz aldean. ERRAN gainerako baitaretan.

baldin bagara, ordu pare batera edo, *Sarri artio* erabili izan dugu beti, orain urte batzuk artio. Zergatik galdu dugu hain denbora laburrean esaldi hau?

Gero artio eta *sarri artio* bi gauza dira eta esanhi diferentea dute, esan bezala. Zergatik ez ibili biak oraintsu arte bezala? Gero hor ikusiko dugu zenbait *oraintxe artio* erraten *sarri artio* betiko moduaren orde!

Eta noiz ibili behar dugu *Ongi ibili!* modua? Norbait despeditzerakoan, bidaiaz doanean, lanen bat egitera edo, bestela, turismoz edo... *Ongi ibili!* esan-nen diogu. Inola ere ez *Bidaia on!* eta horrelako berrikeriak. Eta *Ongi ibili!* tankerakoak ditugu *Ongi izan* edo *Izan ongi*. Beste bat ere badugu horrelakoetan ibiltzen duguna: *Ikusiko dugu*, *Bihar ikusiko* (dugu elkar)... *Ikusiko gara* entzunen diezue gazteei erdaratik kalkatua. Esan dugun bezala dago ongi: *Ikusiko dugu (elkar)*

Eta gaurkoz, aski. Adiskide, *bejondeizula* (bejon (1) diezazula) eta *hurrengo artio*. Hurrengoan konbidatuko zaitut ardo frexko ederra edatera gure herriko ostatuan. *Izan ongi!*

URRIKALDU=Errukitu

ETIMOLOGISTA: Hitzak nondik datozen eta aztertzen dituztenak

Zarata Vs. Musika: Bide eman euskarari!

Zarata, batzuetan arrabotsa. Gezurrak. Mespretxuak. Probokazioak. Tresnak, horiek, baina helburua, bakarra eta argia: euskararen berreskuratzea oztopatu, lehen bezalaxe, baita orain ere. Geldiezina dena, geldiarazi.

Zarata horren aurrean gorrarena egitea ez da nahiko. Zarata horri, musikaren bidez egin behar diogu aurre. Musika, aldarrikapena eta bizi-zaia, horiek baitira gure tresnak. Esan diezaiegun argi: euskara jakitea balio erantsia da edonorentzat, eta euskara bera aberastasuna da Nafarroako gizarte osoarentzat, bai hizkuntza mailan, baina baita kultura, gizarte eta ekonomia mailan ere. Are gehiago: aniztasuna, errespetu, heldutasun eta askatasun adierazle ere bada.

Handia txikia baino gehiago ez dela ikasi dugu. Eta mundu osoan, euskararen ingurune naturala, hemen bertan baino ez dago. Helburu bakarra izan dezake euskarari ongarri hori ukatu nahi dionak: euskara bera desagerrarazi.

Nafarroako Gobernuan eta hauxe osatzen duten alderdien artean euskaltzale gehiago dagoen honetan, manifa?

Gobernu honek, eta berau osatzen duten alderdiek, euskararen garapenerako mesedegarri izango diren neurriak hartu dituzte, bai, baina baita kontrakoak ere. Txalogarriak dira aldekoak, noski, baina kontrakoak salatzeko modukoak ere badira.

Euskalgintzan eta euskarazko komunikabideen esparruan ari garenontzat oso kaltegarriak diren erabakiak hartu ditu Nafarroako Gobernuak. Haserre eta minduta gaude horrekin. Orain arte ez bezala, gobernu berriak aurrerantzean aldeko neurriak hartuko dituelakoan, Eusko Jaurlaritzak bertan behera utzi du orain arte ematen zigun diru laguntza.

Baina gobernu berriak erabakitako kopurua ez da inolaz ere, ez espero genuena, ez gure lanean aurrera egiteko behar dugunaren adi-

nakoa. Ondorioa: laz baino diru gutxiago jasoko dugu euskarazko komunikabideok aurtan. 2008. urtean jasotzen genuenaren ia erdia. Kezkagarria oso, eta batez ere, ulertzen zaila. Diru poltsa 300.000 eurokoa beharrean 900.000koa balitz, orduan ere oposizioak zarata bera egingo luke. Alde gutxi legoke zentzu horretan. Eta hala ere, toki telebistek jasoko duten 1.600.000 eurotik urrun geratuko litzateke balizko kopuru hori. Eta ez dugu uste eragin nabarmenik izango lukeenik gure zakutxoaren handitze horrek aurrekontuen poltsa orokorrean.

Aldekoak berriz, nabarmenak lirateke: gure lanpostuak sendotuko lirateke, eta etorkizunean hobetzeko aukera emango liguke. Ikusitakoak ikusita, nola arrazoituko dute etorkizuneko portziozko igoera zintzo eta zuzena? Izango al da halako igoerarik?

Bada txalotzekoa, eta horrenbestez txalotzeko inolako arazorik ez dugu, bai hainbat ekitalditan bai hartutako hainbat neurrietan ere euskararekiko erakutsitako errespetua. Eredugarri bada jarrera hori, eta horrenbestez, ongi etorria bedi!

Manifestazio honekin Nafarroako Gobernua, eta gobernu osatzen duten alderdiei erakutsiko diegu asko garela eskubide eta aukera berdintasunaren alde hartutako neurri horiek txalotzen ditugun herritarrak.

Arduraz jokatu dugula, eta lagundu nahi dugula. Bide horretan bidaide izango garela beti. Baina era berean, justiziazkoa dena, eta dago-kiguna eskatzen jarraituko dugula. Ekainaren 4ean zuen zain ere izango gara!

Ingurugiroarekin zein erlazio izan nahi dugu?

Artikulu honekin Pulunpek eskualdeko naturaren egoeraren eta gure erlazioaren inguruko artikulu sorta bat hasi nahi du. Gaurkoan, Ultzamako baso esplotazioak eta Orokieta oihanei buruz hitz egingo dizugu.

Ultzamak Mortua mendiaren antolamendurako plana berritu zuen iaz

2015. urteko urtarrilean Ultzamako Udalak eta Nafarroako Gobernuak Ekilan enpresaren lanari esker plan berri bat prestatu zuten. Helburu nagusia, zuhaitziaren kalitatea hobetzea. Horretarako, aldatu beharra dago mendi "baxutik", mendi "altura", kalitate handiagokoa baita bigarrena.

Helburu zehatzagoak ere baditu plan honek:

- Epaitzetarako beharra asetzea
- Udalaren egur beharrak asetzea.
- 450 tona inguru kalkulatzen ziren horretarako.
- Egurra saldu ahal izatea.
- “Quercus robur” espezieko haritz basoak berreskuratzea ikuspegi ekonomiko eta ekologikotik begiratuta.
- Pagadiaren berreskuratzea indartu

Gureak dira oihanak (1)

Joan den urtean ekarri genuen hona zer gertatu den Gartzarongo Aizalorko haritz monumentalarekin, gupidarik gabe soildu baitzuten inor ohartu gabe. Nik galdetuko nuke Orokieta eta Erbitiko dermioan egon izan balitz gertatuko ote zen hau. Ez dakit, Jainkoak jakin; nik dakidan gauza bakarra da, Orokieta-Erbitiko herrian oihana ongi zaintzen dutela. Garai batean izan ziren abusuak, aspaldi, baina joan den berrogeita hamar urtean ongi zaintzen dute oihana. Oihana zaintzeko kultura dagoen herria da hau.

Zerbait jakin asmoz, Orokieta joan gara eta Apezeneko bordako nagusia den Santiago Etxeberriarekin egon gara, aspaldian herrian alkate dagoena. Denetatik mintzatu gara, baina batez ere oihanetako kontuez. Elkarrizketa horretako zenbait zati ekarriko ditugu Pulunpera.

-Santiago, oihanaren zaintzeaz ari izan gaituk jolasean. Nola administratzen duzue?

-Guk, herri koskor guzietan bezala, kontzejuko junta diagu. Bost lagun gaituk, baina horretaz kanpo badiagu Oihanetarako Batzorde bat izendatua, hiru lagunekoa. Batzorde horretan bat juntakoa duk, ni, eta gero, bertze bi lagun dituk, Eusebio Eugi Apezenekoa eta Joxe Mari Jaunarena, Erbitiko Palaziokoa. Gu hiruok ibiltzen gaituk oihanetako edozein zeregin dela eta. Eta izaten duk lan puxka.

Batzorde honek baditu bere egitekoak, betebeharreko lanak, oihana behar bezala kudeatzeko. Bertze zein herritan dago oihan kontuetarako batzorderik? Noren eskutan daude gure oihanak? Zenbait herritan inork ez du kasurik ere egiten, eta hortik kalte handiak etortzen dira.

Gaurkoz ez dugu gehiago luzatu nahi. Hurrengoan emanen diogu elkarrizketa eta komentario hauei segida.
TXURDAN

Santurbe, zaharberritzea baino gehiago

Duela hilabete batzuk XX. mendearen hasieran egindako zaharberritze lan batzuen berri eman genizuen, langile sozialista batzuek egindakoak. Mende bat geroago, zaharberritze lanetan aritu diren beste langile batzuek aurkitu dituzte langile sozialista haiek ezkutatuak garaiko bi egunkari. Aurtengo lanak amaitu dituzte jada, eta aqian 2116.ean, erreformaren bat egiten badute langile hauek ezkutatuak egunkaririk aurkitu dezakete, batek jakin.



Misterioak misterio, ziurra den bakarra Santurbe baselizako zaharberritze lanak amaitu dituztela da. Apirilaren 23an egin zuten inaugurazioa, eta Odietako zein inguruetako bizilagunek parte hartu zuten. Meza, abesbatza, otamena, hitzaldiak... egon ziren, tartean Alberto Urdaniz Odietako alkateak emana.

Odiatarren izaeraren parte dela nabarmendu zuen Albertok, eta urtez urte baselizaren alde lan egin zutenak, izan zituen gogoan: ermitañoak, 1905-1906ko langileak, Jose Otxoa Zabalegi "Kili", aterpea egin zuten gazteak...

Aldaketa ugari izan ditu baselizak bere historian. 1915ean eraikin txiki bat izatetik gaur egungoaren tamaina izatera pasa zen; gurutze forman eraiki zen, altueran eta zabaleran handitua izan zen, koroa egin... Oraingoan konponketak, aldaketak zein berritutakoak hauexek izan dira: teilatuak konpondu, aldare berria jarri, bobedaren arrakalak konpondu, egunkariak agertu ziren tokiko koroaren arkuak kendu, leihoak aldatu, uraren kanalizazioa, sutegi berria jarri, tximinia konpondu, pulpitu, koroaren eskaierak, proiektioetarako beharrezko materialak jarri, pintatu, erretaula konpondu, soinu eta elektrizitate instalazioak...

Aldaketa handiena bestelakoa

Aldaketa nabaria ekarri dute zaharberritze lanek,

baina aldaketa nabarmenagoa izanen da baselizaren erabilera. Duela hilabete batzuk Gaskuetik baselizara doan bidean postontzi bat jarri zuten, erabileraren inguruan proposamen parte-hartzaileak jasotzeko. Odietako Udalaren jabetza publikora igaro zenetik, erabilera anitzen helburuarekin ibili dira.



Zehaztu dute jada zer egingo duten Santurbekin. Erljio eta jai erabilerez gain, ekitaldi kultural, musikal, hezitzaile eta beste gisa batekoak ere jasoko ditu. Herriz herri aurkeztu zuten ekimena hasieran, eta hainbat herritako biztanleek parte hartu dute egitasmo honen lantaldean. Heldu den hilabetean programazio zehaztua aurkeztuko dugu, baina aurreratu dezakegu abesbatzak, dantzariak, bazkariak, musika taldeak, izarren behaketa eta abar izanen direla. Lehenengoa ekainaren 17an izanen da.

"Aurrera atera behar izan gara"

MARTA PEREZ ETA MARIA JESUS LOPERENA : EGOZKUEKO BIZTANLE ETA GAZTAGILEAK

Maria Jesus eta Marta lanean harrapatu ditugu Egozkueko etxean. Urte zaila izan zuten iazkoa, baina apustua egin dute betiko lana mantentzeko. Gaur egun, gaztandegi moderno eta berri-berria dute, nahiz eta, Maria Jesusek dioen bezala, "gaztak beti bezala" egin.



Aldaketa handia sentitu duzue gaztandegi berriarekin?

Marta: Hau guztia ukilua zen lehen. Gazta betidanik egiten zuen amak, baina etxerako bakarrik. laz jarri ginen serio kontuarekin. Kanpora saltzen aurten hasi gara, urtarrilean edo.

Gazta hobia edo iguala ateratzen zaizue?

Maria Jesus: Nik ez diot desberdintasun handirik hartzen, azken finean esnea berbera baita. Gaztan baino gehiago, aldaketa handia sumatzen dut nik lan egiteko erosotasunean: orain dena errazago egiten duzu; makinek lana errazten dizute.

Aurten hasi zarete saltzen...

Marta: laz oso urte gogorra izan genuen; aita eta osaba hil zitzaizkigun. Etxean laguntza behar zela ikusi eta Iruñeko lana utzi eta hemengo proiektua egin genuen. Aurrera atera behar izan gara. Pozik gaude ze oso garrantzitsua iruditzen zait hemengo ogibideak eta mantentzea eta lana etxetik hurbil egitea. Idiazabal eta Artzain gaztan sartuta gaude. Saltzen hasi gara, batez ere ezagun eta hurbileko jendeari eta poliki-poliki bada ere, gustura gaude.

Ordutegiak oso desberdinak dira orain?

Bai, baina onerako: gazta bi egunetan behin egiten dugu, batez ere goiz partean. Horretaz gain, gure modura antolatu gaitezke, ordutegiak ez dira hain finkoak. Iruñean gestoria batean egiten nuen lan, nork esango zidan berriro lanera etxera itzuliko nintzenik... Gauzak etorri ziren bezala etorri ziren eta erabaki genuen esplotazioari halako norabide aldaketa ematea.



“ZUBI BAT DRINAREN GAINEAN”, IVO ANDRITX



eta bertan Mehmed Paša Sokolović zubia. Esmeralda koloreko ibaia gurutzatzen du Erdi Aroko zubi honek, kilometro askotan ibaia zeharkatzen duen zubi bakarra.

Hau esanda, bere garrantzia nabaria dirudi. Ivo Andritx idazle serbiarrak zubi hori ardatz harturik, Vixegrad herriak bizitako gatazkak kontatzen ditu, XVI. mendetik XX.era bizitakoak. Gerra kontuak edo ezinikusiak denak, Otomandar inperioaren garaia bizi izan zuelako herriak, baita Austro-Hungariar inperioarena ere. Bi erlijioaren arteko liskarrak oraintsu arte. Eta gerra garaietan idatzi zuen Andritxek, Bigarren Mundu Gerran, Belgraden zuen etxean.

Balkaneko lurralde menditsua, gatazka ugariren eszenatokia. Drina ibaia, gaur egun Serbia eta Bosnia banatzen dituen ibaia, ortodoxoak alde batean eta musulmanak bestean. Arroila sakonak zeharkatzen ditu, hormak zut ezker-eskuin. Haren ur ertzak alderdi gutxi batzuetan baizik ez dira haran irekietan zabaltzen eta ibaiaren alde batean nahiz bestean lurralde emankorrak eratzen ditu. Drina ibaiaren puntu zehatz batean Vixegrad herria,

Ematen du liburua etorriko zenaren iragarle izan zela, Vixegradek Jugoslaviar iraultza bizi izan zuelako, Jugoslavia sozialista eta Bosniako gerra. Gaur egun ere, ibaiaren alde batera eliza ortodoxoak ikus daitezke, eta bestean meskita musulmanak. Ivo Andritxek Nobel saria jaso zuen liburuarengatik, eta Karlos Zabala itzultzaileak Euskadi literatur saria. Dударik gabe irakurri beharrekoa.

“EMAN IZAR BAT”, MIRIAM GARCIA PASCUAL



Patagoniaraino. Bertan eman zituen zazpi hilabeteetan alpinismoaren leku historikoetan zailtasun eskaladak egin zituen: El Capitan, Huascarán, Alpamayo, Cerro Torre, Fitz Roy...

Edozein alpinistaren ametsa da hori. 65 orrialdetan esperientzia honen bizipenak topatuko ditugu, baina liburu gutxitan idazten den moduan kontatuak. Olerkien eta bere pentsamenduen bidez ezagutuko dugu bere esperientzia, eta bizitza ulertzeko beste modu bat ulertuko dugu.

27 urterekin, Miriam idazle eta mendizale bikaina betirako gelditu zen Meru Peak-en (Himalaya), baina literaturaren harribitxi hau utzi zigun...gozatu! MIKEL PARDO

Badaude liburuak azaltzen zailak direnak. Istoriobat kontatzen dute, bai, baina harago doaz. Tallako neska gazte batek egindako bidaia kontatzen du liburuak, diru gutxirekin egindakoa (gaur egungo 2000 euro izanen ziren).

Naturaren maitale eta mendizale amorratua den neskak Amerika osoa zeharkatu zuen, Yosemitek

Disko berri bi, tira, hiru

Txari Eletak eta Unai Otegi diskoak aurkeztu dituzte aste hauetan. Eletaren kasuan bikoitza da lana.

Artea sortzea, eta batez ere bukatzea, prozesu bat da, bide bat. Batzuetan motzagoa eta beste batzuetan luzeagoa. Batzuetan ere amaiezina bihurtzen dena... Ideia buruan sortzen denetik, publikoki aurkezten den arte, askotan denbora luzea pasatzen da. Txari Eletak eta Unai Otegi bi prozesu artistiko desberdin aurkeztu dizkigute oraingoan, bidea amaieratik begiratzen duenaren pozarekin.



Maitekiro utz zaitetz eramaten


Bakarkako lehenengo diskoa aurkeztu du Txari Eletak. Haurdunaldi luzea izan da eta erditzea ere bai” komentatu zigun Esan Erran irratiara egin zigun bisitan. Lehendik esperientzia bazuen Txarrik beste istorioetan eta musika taldeetan, baina bakarkako lehenengo proiektua izan da. Bikoitza gainera: “Prozesu oso-oso luzea izan da. Aurretik Ines Rubiorekin “Avalancha” taldean diskoa grabatu genuen, oso azkar, nik baditut abesti batzuk, nik baita ere... estudiora sartu eta di-da grabatu genituen.

Duela hilabete luze, Iker Huicirekin elkartu nintzen musikarekin jolasteko, esperimentatzeko.

Huici Demode quartet taldeko partaidea da eta bere etxeko estudiotxoan gauzak grabatzen aritu gara. Musika lasaia, oinarri elektronikoen gainean Txarrik abesten du, tibetar kaikuen laguntzaz... Disko hau “Maitekiro” deitzen da.

Kontua da Txarrik bazituela beste abesti eta melodia batzuk. Eta zer egin haiekin? Bada, disko bikoitza. “Déjate llevar” du izena bigarren atal honen eta oso desberdina da bestearekin alderatuz gero. Kitarra eta lagun batzuen laguntzaz, kantautore estiloaz hurbilago agertzen zaigu Txari. “Oso iritzi desberdinak eta harrigarriak jasotzen ari naiz bi lanei buruz”. Entzun zuk zeuk eta erabaki zein duzun gustukoen!

Klasikoetara itzulera



hurbildu da gehiago azkenaldian, “badirudi martxan jarri dela folkaren bidea”. Ihabengo bizilagun honek urtetan eskenatokietan orkestrekin eta halakoekin jotzen zuen bitartean kalean ere jotzen zuen: “Kalean jotzen nuen musika hura grabatzeko gogoan nuen aspaldi. Azken urte hauetan grabaketak egiteko programa bat ikasi dut, eta horrek erraztu egin dit etxean egin ahal izatea lan hau. Joan den udaberrian grabatu nituen eta ezagun bati nahasketa eta masterizazioa egiteko eman nizkion”.

Bitxia iruditu zaigu grabazio prozesua. “Beste instrumentuak aurretik grabatuta daude eta solista ahotza zuk jotzen duzu”. Hala ere, argitzen du Unai musikarien izenak aipatu ditu.

Izen klasikoak landu ditu Otegi oraingoan: Mozart, Haendel, Doniccetti, Drouet... Pieza bakoi-tzak mugimendu desberdinak ditu: *largetto*, *allegro*, *adaggo* ...

AXOLAGABE TALDEAK AURKEZTEN DU:

“Ser o no Ser”

EKAINAK 10 20:00
EKAINAK 11, 18:30 ETA 20:30

GIZARTE ETXEAN 



2015eko MARTXOA

Gure alderdian izan ziren Jaiotzak eta Heriotzak

JAIOTZAK:

BASABURUA

Gartzaron

Xuban Oronoz Gaskue, Olaia eta Gorkaren semea, 2016ko martxoaren 26an jaioa *Elizaldean*.

IMOTZ

Latasa

Nahia Arbizu Palomo, Soraya eta Jose Ignacioren alaba, 2016ko martxoaren 8an jaioa *Apezenean* (Ostatua).

Ongi etorri jaio berriei eta zorionak beren gurasoei!

HERIOTZAK

BASABURUA

Aizarotz

Maritxu Etxegia Lasarte, 2016ko martxoaren 3an hil zen (Igoako alaba).

Arrarats

Miguel Mariezkurrena Etxegia, *Goikoetxeko* atte, atautxi eta birratautxi, 2016ko martxoaren 23an hil zen.

Beruete

Kontxi Arangoa Goizueta, *Otsakarko* etxe-koandrea, 2016ko martxoaren 1ean hil zen.

Gure oroimenean izanen zarete.



Xuban amaren altzoan



Nahia gurasoekin



Kontxi Arangoa



Miguel Mariezkurrena



Maritxu Etxegia

Eulia

Azkeneko egunetan badirudi bukatu dela kontua. "Holokaustoa" eta "sarraskia" bezalako hitzak erabiltzen genituen goizero-goizero irratira ailegatzen ginenean. Hildako hamarnaka euli aurkitzen genituen leihoaren azpian, ordenagailuaren alboan, pantailaren azpian... Garbitzen bagenituen ere, hurrengo egunean beste horrenbeste agertzen ziren... Misterio handia iruditzen zitzaigun eta zuretzako ikertzen egon gara, irakurle maitea. Hemen duzu, euliei buruz aurkitu ditugun bitxikeria batzuk.



Apeztegi berrin lagun batek esan zigun bere etxean gauza bera gertatzen zitzaiola neguro: egurraren zirrikietan euliak sartzen direla goxo-goxo egotera eta ateratzen joaten direla. Arazoak ez omen duela irtenbiderik. Aldizkariaren kolaboratzaile batek esan zigun Jauntsarasko udaletxeko lehenengo solairuan lehen ere ba omen zegoela halako neguko "izurritea". Sarean bilatu dugu eta "euli-kabiei" buruz hitz egiten omen dute.

Ez da xamurra egunero halako euli kanposantua aurkitzea, baina tira, bizitza honetan denetara ohitzen zara. Erratzarekin euliak kentzen nengoela burura etorri zitzaidan txikitant kontaktzen zidaten pasadizoa: Leringo aitona bati zopan euli bat erortzen zitzaionean, koilararekin hartu eta erraten omen zion: "Agacha las alas que viene un tunel". Gizakiok betidanik ohitu gara azkar egoera zailletara.

Egoera zailletara ohitzeak dakarren arazoei buruz hitz egiten du *El señor de las moscas* eleberri famatuak. 1954. urtean William Golding idazle ingelesak argitaratu zuen. Mundua gerran dago eta hegazkin bat hutsik dagoen irla batera erortzen da: umeak dira bizirauten duten bakarrak. Haien artean nola antolatzen diren eta zer gaiztakeriak egiten dituzten dira eleberriaren ar-

datza. Zentzu filosofikoan, gizakion makurkeriari buruz hitz egiten da: makil batean sartua dagoen basurde baten burua da gaiztotasun horren abiapuntua. Basurde buru hori ehunka euliz inguratuta dago beti, horregatik "eulien ugazaba" izena. Bitxikeria gisa, *Los Simpson* telesailean kapitulu bat eskaintzen diote istorio honi. Halere, ez da kasualitate izen hori izatea...

Aspaldiko gizarteetara goaz orain, Itun Zaharren garaietara. Adituek diote, "Eulien Ugazaba" izena "Belcebú" edo "Beelzebub" izenetatik datorrela. Garai horietan Baal jainkoaren jarraitzaileei iseka egiteko erabiltzen zuten Beelzebub hitza: sakrifizioak egiteko erabiltzen zuten haragia tenpluetan usteltzen uzten zuten, eta, jakina, gaurko protagonistak hortxe zeuden, gustura. Belcebú hitza, dakigun bezala, deabruaren izenetako bat da kristau mitologian.

Euliak bezala han-hemen hegan ibili ondoren, bukatu da gure bidaia, ez dakigu hutsik dagoen irla batean bukatuko dugun, edota Basaburuko ganbara bateko zirrikietan, edota are okerrago, Leringo aitona baten aurpegiko tunelaren barruan. Halere, kontent gaude, munduko bitxikerietatik gehiago dakigulako.

ZORIONAK ZUEI!



Juantxo



Esther



Riki eta Benito



Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziurtagiriak

KARIKOLAR

ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 - 722 766 835

Lizaso

karikolaregoitz@gmail.com

- Instalaciones Solares Térmicas
- Instalaciones Solares Fotovoltaicas
- Calderas y Estufas de Biomasa
- Ahorro y Eficiencia Energética



- Eguzki-instalazio termikoak
- Eguzki-instalazio fotoboltaikoak
- Biomasa galdarak, berogailuak eta lurreko suak
- Aurrezki eta eraginkortasun energetikoa

685 907 634 - 685 907 635 tedsna@tedesna.com www.tedesna.com



URKO



PAKI



LUA



HODEI



RAKEL



DABID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA

TEL: 678 623866

argapin@hotmail.com

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberitzea
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe

ZIAURRITZ

Sateliteari esker, internetera
konektatu zaitez



Senatel

Telecomunicaciones

848 410 500

Sta. Vicenta Maria 14 31012

IRUÑA

info@senatel.es



Internet donde
no llega nadie



NAROA



LEONCIO

1967 1968 1969 1970 1971 1972 1973 1974
1975 1976 1977 1978 1979 1980 1981 1982 1983
1984 1985 1986 1987 1988 1989 1990 1991 1992
1993 1994 1995 1996 1997 1998 1999 2000 2001 2002 2003 2004
2005 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015

2016 Larraintzar EKAINAK II

ARGAZKI ERAKUSKETA

MUSIKA

LIPDUB AURKEZPENA

GINKANA

PUZGARRIAK

BAZKARIRARKO TXARTELAK SALGAI:

- Lizasoko Hermigaraten
- Jautsarasko Apeztegiberrian
- Larraintzarko Bentan



Txartelak erosteko azken eguna maiatzak 30

Helduak 20€ - 12 urte arte 10€